

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA Ikasgia: Komunikazio terapeutikoa eragin emozionaleko egoeretan Kodea: 27968	Mota: Hautazkoa Eskolen kronograma: 2. lauhilekoa Hizkuntza: Euskara/Gaztelania ECTS kredituak: 4,5 Maila: 3.a
Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua zehaztea: Aukerako ikasgai hau Erizaintzako Gradu titulazioko seigarren seihilekoan sartzen da. Gaztelaniaz eta euskaraz ematen da, eta honako gaitasun hauek ematen dizkio ikasleari: <ul style="list-style-type: none">• Pertsonak bizi-zikloan izaten dituzten krisi-egoerak analizatzea, eta egoera horietan egokiak diren komunikazio-tresnak aplikatzen trebatzea.• Beren garapen pertsonalean aurrera egitea.	
Sartzeko baldintzak: Ikasgai honetako gaitasunak garatzeko, beharrezkoa da Harreman eta Komunikazioko ezagutzak (Graduko 2. ikasturtea) barneratuta edukitzea	

IRAKASLEAK

Tfnoa.

e-maila

Ikasgaiaren arduraduna	Tfnoa.	e-maila
Shaila Herrero Díaz	945 218088	shaila_herrero002@ehu.eus shaila.herrerodiaz@osakidetza.eus
Euskarazko lerroko irakasleak: Jaione Santiago Garín		jaione.santiagogarín@osakidetza.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Egoera desberdinek pertsonen osasunean duten eraginaren aldakortasuna justifikatzea, gerta daitezkeen gatazka-egoerak aztertuz eta haiei aurrea hartuz.
- G2. Pazientearekiko harremanak profesionalarengan sortzen duen eraginaz ohartzea.
- G3. Laguntza emozionaleko trebezia pertsonalak hobetzea.
- G4. Ideiak, ezagutzak eta sentimenduak adierazten dituzten erantzunak (hitzezkoak edo ez-hitzezkoak) eraginkortasunez eraikitzea, komunikazio asertibo eta enpatikoko teknikak sartuz.

IKASITAKOAREN EMAITZAK

- IE1. Pertsonen arteko harremanetan askotariko testuinguruetan sortzen diren erantzunak eta komunikazio estiloak aztertzea eta kritikatzeta.
- IE2. Norberaren emozioei buruzko kritika egitea, erantzuna baldintzatzen duten agenteak diren aldetik.
- IE3. Pertsonaren beharrak identifikatzea, informazio-beharren eta behar emozionalen artean bereiziz, komunikazio teknika eta tresna espezifikoak inplementatuz.
- IE4. Solaskidearen beharretara doitutako interakzio bat eraikitzea, solaskidearen mezuaren garrantzia, argitasuna eta entzutea barneratuz.

EDUKIAK

I. UNITATEA: KOMUNIKAZIO TERAPEUTIKOA ERAGIN EMOZIONALEKO EGOERETAN

1. Emozioak

- 1.1. Lehenengo mailako eta bigarren mailako emozioak
- 1.2. Emozioen funtzioak
- 1.3. Emozio-kognizio-jokabidea

2. Enpatia

- 2.1. Enpatia, sinpatia eta konpasioa
- 2.2. Erresonantzia emozionala eta fokukak
- 2.3. Entzutea

3. Giro emozionala

- 3.1. Pilar Arranzen eskailera
- 3.2. Ez-hitzezko komunikazioa eta "lengoaia eskizofrenesa"

4. Intentzioa eta interbentzioa

- 4.1. Informazioa vs emozioa
- 4.2. Komunikazioaren tresnak enpatiaren ikuspegitik
- 4.3. Komunikazioaren tresnak asertibitatearen ikuspegitik

II. UNITATEA: KOMUNIKAZIO TERAPEUTIKOKO TREBETASUN PRAKTIKOAK ERAGIN EMOZIONALEKO EGOERETAN

Ikasgaiaren eduki teorikoak ikasleek proposatutako egoerak antzetzuz eta aztertuz eraikiko dira. Kasu bakoitzetik abiatuta, komunikazio-erabilerarako behar, inpaktu, eskari eta tresna egokiak identifikatuko dira, eta hainbat alderdi azpimarratuko dira, hala nola timing-a, fokua, asmoa, araketa, asertibitatea edo enpatia.

UNITATEA	IRAKASLEA	SAIO MAGISTRALAK	MINTEGI ORDUAK	LABORATEGIKO PRAKTIKAK
I	Jaione Santiago Garin	6	8	3
II	Jaione Santiago Garin	3	4	18

METODOLOGIA

Funtsean, parte hartzeko metodologia erabiliko da, honela:

- **Klase magistralak:** irakasleak ikasleen parte-hartzea erraztuko du, ikus-entzunezko materiala erabiliz eta aztertuz.
- **Mintegia:** modu arrazoituan eztabaidatzeko eta kasuak aztertzeko taldeak; zenbaitetan, paperean egingo dituzten ariketak, eta norberaren gogoetak barne.
- **Laborategiko ariketak:** *role-playingak*, ikasleek proposatutako egoerak jokatuz; gero, analisi kritikoa egin eta hobetzeko teknikak landuko dituzte. Laborategiko ariketak ikasgaiaren ardatza dira.

AURREZ AURREKO LANA (42 Ordu)		
Klase magistralak	Mintegia	Laborategiko praktikak
9	12	21

AURREZ AURREKOA EZ DEN LANA (67,5 Ordu)			
Plataforma birtuala	Taldeko lana	Banakako lana	Irakurketa/ikasketa osagarriak
6	26,5	25	10

ORDUAK GUZTIRA	
ECTS	4,5
Orduak	112,5

EBALUAZIO-SISTEMAK

DEIALDI ARRUNTA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA:

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak: parte-hartzean oinarritutako ikasgaia izanik, ebaluazio jarraitua egingo da, eta beraz, nahitaezkoa izango da aurrez aurreko eskolen gutxienez % 90era joatea. Ikasleak eskoletara joaterik ez badu, irakasleari jakinarazi beharko dio, irakasleak ebaluazio jarraituko irizpideak beste egoera horretara egokitu ditzan.

Beraz, gaitasun guztiak landu direla ziurtatzeko, ebaluazio-jardueren multzo bat ezartzen da; horrek ikasle bakoitzak prestakuntza-aldian izan duen bilakaera baloratzea ahalbidetzen du

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	IE1, IE3	Eskola magistralak eta jarduera kooperatiboak	Ikus-entzunezko materialaren analisia eta/edo kasuaren analisia	% 10
G2	IE2	Eragin emozionala duten egoeren analisia	Hausnarketa pertsonala (aurretiko eta finala)	% 30
G3	IE1, IE2, IE3, IE4	Jarduera kooperatiboak eta esku-hartzeen analisia	Laborategiko ariketak. Parte hartzea eta role-playingaren feedbacka	% 20
G4	IE1, IE2, IE3, IE4	<i>Role playinga</i>	<i>Role-playinga</i> egitea eta esku-hartzeak sortzea	% 40

Azken kalifikazioa gainditzeko, ezinbestekoa da gutxienez guztizko notaren % 50 lortzea gaitasunak ebaluatzeko erabiliko diren zeregin guztietan.

Hala nahi duten edo hori eskatzen duten ikasleentzat, aukera dago hautazko lanak egiteko. Horien gaiak irakaslearekin adostuko dira kasuan-kasu.

Ebaluazio jarraituan, zeregin puntuagarriak egiteko eta lan puntuagarriak entregatzeko datak ikasgaiaren kronograman zehaztuko dira. Kronograma hori ikasleen eskura egongo da ikasgaia hasten denetik.

Hala ere, ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazioko sistema bidezko ebaluazioa izateko, ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu edo ez.

Bi kasuetan, gainditu ahal izateko, beharrezkoa da zeregin ebaluagarri bakoitzaren azken notaren % 50 ateratzea gutxienez.

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8.artikuluari jasotakoari jarraikiz.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren %100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak % 33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkari aritzea, GKEak edo beste batzuk. Honako hauek izan ahaliko ditu: *role playing* baten bideo-grabazioa, *role playinga* zuzenean egitea, *role playingaren* autoanalisi, beste lankide batek egindako *role playingaren* kritika eraikitzailea eta proba idatzia.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	IE1, IE3	Eskola magistralak eta jarduera kooperatiboak	Ikus-entzunezko materialaren analisia	% 10
G2	IE2	Eragin emozionala duten egoeren analisia	Hausnarketa pertsonala	% 30
G3	IE1, IE2, IE3, IE4	Jarduera kooperatiboak eta esku-hartzeen analisia	Laborategiko ariketak. Parte-hartzea eta feedback ariketak role playingetan	% 20
G4	IE1, IE2, IE3, IE4	<i>Role playinga</i>	Role playinga egitea Interbentzioak eraikitzea: baliabideak	% 40

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketan data ofizialetan zehaztutako probara ez agertzea uko egitea automatikoa izango da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Lehenengo deialdian behar bezalako gaitasun-garapena lortu ez duten ikasleek (gutxienez ebaluazio-proba bakoitzaren azken notaren %50) beste aukera bat izango dute, bigarren deialdian, gainditu gabeko horietan duten maila erakusteko, gainditutako proben kalifikazioak ikasturtea amaitu arte erreserbatuta geratuko direlarik.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Balzer J. Comunicación en enfermería. 9. argt. Bartzelona: Elsevier; 2020.
- * Cibanal L, Arce MC, Carballal MC. Técnicas de comunicación y relación de ayuda en ciencias de la salud. 4. argt. Bartzelona: Elsevier; 2022.
- * Cleries X.: *La comunicación: una competencia esencial para los profesionales de la salud*. Bartzelona: Masson Elsevier; 2006.
- * Davis F.: *La comunicación no verbal*, 3. argit. Madril: Alianza Editorial; 2011.
- * López RM, Gordillo F, Grau M (coords). Comportamiento no verbal. Más allá de la comunicación y el lenguaje. Pirámide; 2016.
- * Martín-Ovejero, JL. Tú habla que yo te leo. Aguilar; 2019.
- * Rogers C.: *Psicoterapia centrada en el cliente*. Editorial Paidós Ibéricas; 1981.
- * Tazón MP, García-Campayo J, Aseguinolaza L. Relación y Comunicación. Colección Enfermería S 21. Madril: Ediciones DAE (Grupo Paradigma); 2000. (formato electrónico)

- * Valverde C.: *Comunicación terapéutica en Enfermería*. Madril: DAE Siglo 21; 2007.
- * Watzlawick P, Beavin J, Jackson D. *Teoría de la comunicación humana*. Bartzelona: Herder; 2012.

Praktikarako Gida klinikoak

- Cuidados al final de la vida (<https://portal.guiasalud.es/gpc/atencion-paliativa-ultimos-dias/>)
- El maltrato contra las mujeres (https://www.bpsos.es/wp-content/uploads/2022/02/D0016_MALTRATO_MUJERES_2012.pdf)
- Establecimiento de la Relación Terapéutica (https://www.bpsos.es/wp-content/uploads/2020/01/D0010_RTerapeutica_spp_2006.pdf)
- Guía de práctica clínica de prevención y tratamiento de la conducta suicida (resumida: https://portal.guiasalud.es/wp-content/uploads/2020/09/gpc_481_conducta_suicida_avaliat_resum_modif_2020_2.pdf) (completa: https://portal.guiasalud.es/wp-content/uploads/2021/05/gpc_481_conducta_suicida_avaliat_compl.pdf)
- Intervención en crisis (https://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/2014_Crisis_022014_-_with_supplement.pdf)

OHARRAK

Ikastaroaren hasieran ikasleen eskura jarriko dira e-Gelan ikasgaiarekin lotutako hainbat dokumentu. Egoerak aldaketak egitera behartzen badu presentzialtasunari dagokionez eta gida honetan jasotako alderdiren bat aldatu behar bada, zehaztapen eta egokitzapen guztiak e-Gelan argitaratuko dira.

TUTORETZAK

Ikasgaiko irakasleekin tutoretza-saioak eskatzeko mezu elektronikoa bat bidali behar zaio ikasgaiaren arduradunari jaione.santiagogarín@osakidetza.eus. Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak. Tutoretza-saioen xedea ez da huts egindako eskola presentzialak ordezkatzea.